

AREATZAKO UDALAREN BULEGOETARA SARTZEKO PROTOKOLOA

XEDEA:

Agiri honen xedea da herritarrek udal-bulegoetara sartzeko bete behar dituzten baldintzak definitzea.

INDARRALDIA:

Aldatu edo baliogabetzen ez den bitartean egongo da agiria indarrean, COVID-19aren osasun-parametroen bilakaeraren arabera.

Urriaren 1ean sartuko da indarrean.

SARBIDEA:

Bulegoetara sartzeko, beharrezkoa izango da hitzordua aldeztatik hartzea, baina premiazko kontsulten kasuan hitzordurik gabe emango da arreta.

Sartzeko gidaridun atea itxita egongo da, eta interesdunek txirrina jotzen dutenean irekiko da.

Langileak, udaleko kideak eta abar deitu gabe sartu ahal izateko, giltzen kopiak emango zaizkie.

Astelehenetik ostiralera, hauxe izango da jendeari arreta emateko ordutegia:
09:00etatik 14:00etara.

Ezin izango dira sartu COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten edo PCR bat egiteko zain dauden pertsonak.

Eraikinera sartzen diren pertsona guztiek derrigorrez eraman beharko dute maskara, ondo jantzita, eta eskuak garbitu beharko dituzte eskuragarri izango duten gel bakterizidarekin.

Eskaileretatik ibiltzeko, ezarritako markak jarraituko dira.

ESPAZIOEN ANTOLAKETA ETA EDUKIERA

Bulegoaren edukierari dagokionez, kontsultak egiteko bi pertsona egongo dira gehienez ere, bat arreta emateko gelan eta bestea itxaroten, gela horren alboan dagoen beste espazio batean. Kontsulta bakoitzean, gehienez, bi pertsona egon ahal izango dira, kontsulta dela eta jende gehiago egon behar den kasuetan izan ezik.

Berataratzen diren pertsonen gehieneko kopurua mugatzeko ahalegina egin behar da, eta, edonola ere, 1,5 metroko segurtasun-distantziari eutsi behar zaio.

Espazioak ondo aireztatu behar dira, eta, ondo aireztatzeko, aldian-aldian irekiko dira leihoak.

ESPAZIOAK GARBITZEA

Arreta berezia jarriko da bulegoetako espazioak garbitzeko orduan, batik bat, aireztapenari eta ukipen-azalerei dagokienez.

ERREGISTROA

Udal-bulegoetara bertaratzen diren pertsonen erregistroa egingo da; horrela, COVID-19aren kasuak agertzen badira, kontaktuen jarraipena egin ahal izango da. Erregistro hori premia horretarako baino ez da erabiliko eta aplikatu beharreko berrogeialdia igarotzen denean suntsituko da.

UDALEKO LANGILEEN NORBERA BABESTEKO EKIPAMENDUAK

Kanpoko kontsultei arreta ematen dieten udaleko langileek maskara egokiak jarri beharko dituzte eta sarritan garbituko dituzte eskuak.

COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten langileak ez dira lanpostuetara joango eta, kasuan kasu, etxetik egingo dute lan.

PCR analisiaren emaitzaren zain dauden langileek ahalik eta arinen eman beharko diote horren berri udalari.

Kasu horretan, udal-bulegoetan jendeari arreta emateari utziko dio udalak, proben emaitzak jakin arte. Langileek, kasuan kasu, etxetik egingo dute lan.

HIRUGARRENEK UDALETXEKO BESTE ESPAZIO BATZUK ERAILTZEA

Beste eragile batzuei baimendutako espazioak erabiltzeko, ezinbestekoa izango da sartzeko arauak, edukiera eta kontingentzia-protokoloak eta -planak aurkeztea, non unean-unean indarrean dauden osasun-gomendioak bete beharko diren.

Horrez gain, modu eraginkorrean erraztu beharko da COVID-19a izan dezaketen kasuen kontaktuen jarraipena.

Areatzan, 2020ko irailaren 14an

AREATZAKO UDALA